



BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1996ko abenduaren 27a. 49. zenbakia. Doan banatzen da.

Urte
berri on!

ZORIONAK

ORDULARI
BITXITEGI

IRULEGI



59 07 57

KOLTXOI DENDA
ARRATE PLAZA 9



HEGOABIL

59 07 56

ETXEKO
APAINKETAK
ETA
KOLTXOIAK

Lentzeria,
ohial eta
bainujantziak

*Arrate
Berri*

59 44 83

GOZOTEGIA
IZOZTEGIA



INAXI

59 03 03

AGUSTIN LEITZA 3 eta 5

MARTIN MUSIKA ESKOLA



69 24 35

KALE BERRIA, 14
BILLABONA

MARTIN MUSIKA ESKOLAN IKASTEKO DITUZUN AUKERAK:

- **TRIKITIXA.**

Solfeoarekin edota Martinen metodo bereziarekin.

- **PANDEROA.**

Irakaslea: **ANDONI EZKERRA.**

- **SOLFEOA.**

Maila guztiak, musika-tresna bat ikastera behartu gabe.

Irakaslea: **NEREA GOIKOETXEA.**

- **AKORDEOIA**

Botoiduna, tekladuna edo bassetia.

Irakaslea: **JOSE ANGEL LORAN** (*kontserbatorioko goi mailako tituloduna*).

- **DANTZA.**

Herriko plazetan dantza egiteko edota txapelketetan parte hartzeko.

Irakaslea: **JUANTXO URBIETA.**

- **PIANOA.**

Irakaslea: **NEREA GOIKOETXEA.**

1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
J.A. Rodriguez. *Eta erregeei, zer eskatu?*
2. **GALDEZKA.**
Eta zuretzat, zein izan da aurtengo gertaerarik aipagarriena?
3. **LARRAUL.**
Turismoa herria zuzpertzeko.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Abertzale izan al daiteke euskararik gabe?
Hirugarren adinekoentzat zerbitzu ugari.
Buruntzaldea, udalen kirol zerbitzu mankomunatu.
7. **ASTEASU.**
Asteasuko odol emaleak.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**
Haur eta gaztetxoek hezkuntzari buruzko hitzaldiak.
Ander Aranburu pilotaria gipuzkoako hirugarrena.
Erdaraz euskaraz baino gehiago.
10. **ZIZURKIL.**
Zairekoak laguntzeko kanpaina.
11. **BASERRIA.**
Esnebehientzako jatena berria.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
Urte berri on!
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Pedro Aizpurua musikalaria.
- 16-17. **KIROLA.**
Eskia.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32
Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.
Zuzendaria: Ainhoa Oiartzabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Ainhoa Oiartzabal eta Ainhoa Aiartza **Argazkiak:** Manu Mujika,
Komikia: Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 11354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



Eta erregeei, zer eskatu?



J. A. RODRIGUEZ
"TXIKI"

Honezkeroko tope eginda egongo zarete horrenbeste turroi eta txanpaina jan eta edan ondoren. Gero ez etorri damutzen, eh! Gerrian zer? zentimetro bat gehiago; eta pixuan? pare bat kilo. Gezurra bada ere –gehienetan ala izaten baita–, iada zenbat aldiz esan dugu: baietz, urtarilaren 7tik aurrera erregimen zorrotza egingo dudala.

Ba, tope eginda bazaudete ere, ni, orijinaltasunaren eredu, Eguberriekin natorkizue berriz ere. Erregeak ala Olentzero? Ni, lehengo egunean Mikel Garmendiak –Goenkaleko Joxe Marik– zioen bezala, betidanik *monarkiko*. Eskertuko ote dit On Juan Carlosek nere aitormen publiko hau?

Bai, gure etxean beti Erregeak etorri izan dira, eta espero dut aurtengoa ere etortzea. Gainera, txori batek esan dit aurtengoa «benetakoa» etorriko omen zaidala.

Eta, zer eskatuko diot? Ez naiz epe motzera eskuragarriak ez diren gauzak eskatzen hasiko: mundu osorako justizia eta elkartasuna, Euskal Herrirako «pakea, lana eta askatasuna», edota Andoainerako kulturune berria. Ez, askoz ere apalago jokatuko dut, ea horrela Meltxorrek kaso egiten didan.

Bakarrik gauza bat eska dezakedala? Bat bakarrik? Zaila jartzen didazu aukera Maiestate, baina, osasuna emantzat jotzen badugu, utzi pensatzen, utzi pensatzen... ba dakit, lo gehiago egiteko aukera, lo segidan egiteko aukera, Mikelen gelara horrenbeste buelta egin gabe. Esker-rak Mikelek urte terdi besterik ez duela, bestela, hau idazteagatik aitarengatik esango ez zituenak!

Meltxor, hori gutxienez ekarriko didazu, ez? Ongi portatu naizelako beste zerbait ere eskatzeko? Beno, oraingo hau neretzat bakarrik izango ez den oparia: 2000. urtean *Aiurri* oraindik kalean irautea. Ametsa ote?

Ah, ah... Meltxor, Meltxor... ahaztu egiten zitzaidan: azken oparitxoak, mesedez, zail xamarra bada ere: Errealak Ufarako sailka dadila!

Zorionak eta urte berri on!, irakurle.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Fuskera Departamentuaren laguntza jasotzen du.

ETA ZURETZAT, ZEIN IZAN DA AURTENGO GERTAERARIK AIPAGARRIENA?

Heldu da urtearen amaiera. Lau egun bakarrik falta dira kanpai-hotsak entzun eta ahoa mahats-alez bete, ongi afaldu, alkohola erruz edan -batzuek behintzat bai- eta urte berriko lehenengo egunari ongi etorria emateko. Gehienek parranda itzelak egingo dituzte urte berria ospatzeko, baina urte berriari ongi etorria Adarra edota Loatzora igota egingo dion herrita-

rrik ere bada. Egun hauetan egiten dugu aurten bizi izan ditugun 365 -aurten egun bat gehiago- egunen balorazioa, eta noski, datorren urtean egin nahi ditugun proiektu eta asmoen planifikazioa. Guk, herritarren ustez 1996. urtean gertatu den gauzarik aipagarriena zein izan den jakiteko irten gara kalera, eta hona hemen erantzunak. Ah! Urte berri on!



Eulali Etxeberria, irakaslea. Andoain.

Gertaera bat azpimarratzekotan, Senideak-ek eginiko azken manifestazioa azpimarratuko nuke. Senideak-ek eta presoan inguruko mugimenduak eginiko lana aipatzekoa da. Gainera, piskanaka-piskanaka, egoera hori hobetuko delako esperantza dut.



Iban Ezkerra, ikaslea. Asteasu.

Eskolako zaharrenak -Pello Errotakoak, alegia- orain gu garela izan da aurtengo gertaerarik garrantzitsuena. Bestalde, ni pilotaria naiz, eta beraz, asko poztu nau Arretsek banakako txapelketa irabazteak.



Isidoro Gonzalez, langabea. Billabona.

Kirolari dagokionez, eta ni esku-baloitaren jarraitzaile sutsua izanik, Elgorriagak Errege kopa irabazi duela da aurtengo gauza aipagarrienetako bat. Politikari dagokionean berriz, gauzak nahikoa gaizki joan dira; bai Gobernu mailan nola herri mailan. Bestalde, hiru urte daramatzat langabezian, beraz, ez zait iruditzen aurten ezer aipagarririk gertatu denik.



Iban Rodriguez, langilea. Andoain.

Euskal Herriko gertaerarik aipagarriena Inurrategi anaiek *Shisha Pangma* mendia igo dutela izan da. Anai horien irteerak eta ibilaklariak ez dira ez nolana hikoak! Datozen urteetan ere beste mendi batzuk igozten jarrituko dutenez, zorta ona opa diet.



Aitor Aramendi, ikaslea. Zizurkil.

Ez zait ezer bururatzen... beno bai, aurtengo herriko festak. Oso ongi pasa dut aurtengo jaietan, berandu etxeratzen nintzen, gainera.



Miren Amonarriz, ikaslea. Larraul.

Maisu berri bat dugula da kurtso honetako gertaera aipagarrienetako bat. Bestalde, ez zait ezer bururatzen... galdera zaila da gero!



Arma eta gidatze baimenatarako zentro medikoa.

Carlos I, 5.zkia. (Trafiko ondoan) 20011 Donostia - tfnoa.: 45 43 39

R. P. S. 466/96



Altzariak

Kaletxiki, 6 Fax - Telef. 59 07 61
ANDOAIN

TURISMOA HERRIA ZUZPERTZEKO

Rosa Díez turismo sailburua izan zen herrian

Rosa Díez turismo sailburuak egun oso bat igaro zuen Larraulen. Goizean zinegotzietekin bileratxo bat egin ondoren, Larraulgo txoko politenetako batzuk ikustera joan ziren bazkaldu aurretik. Udal ordezkari eta langileekin bazkaldu ondoren, herritarrekin hartu zuen kafea Rosa Díez-ek.

Larraulgo Udalaren ekimena txalotu zuen sailburuak, herriko bizimodua errespetatuz, herria garatzeko turismoaren bideetik jo duela. Bere esanetan, gainera, egungo nekazal herriek bizirik irauteko hartu behar duten bidea da hori: *"Egun, jendea Larraul antzeko herrietara joaten da bere denbora librean. Izan ere, kulturaz eta naturaz gozatzeko eskaera ugartzen ari da, eta Larraulen eskaera horri erantzuteko aukera paregabea duzue: zuten eguneroko bizimodua aldatu gabe"*. Beraz, denbora libre betetzeko baliabideak eskainiz, larrauldarrek bizimodua ateratzeko modua izango dute proiektu horien bitartez. Oraingoz, museoa egiteko eta errota txukuntzeko jaso dute dirua larrauldarrek, baina proiektu gehiagotarako laguntza jasoko dutela azpimarratu zuen Rosa Díez sailburuak.

Larraulgo Udala aspalditik ari da herriari bizia emateko eta lanpostuak sortzeko egitasmoak egiten. Gauzak horrela, etxeak txukuntzeko lehiaketak, erretaula zaharra ikusgai jartzeko lanak eta antzeko gauza gehiago egiten ari da udala. Herriko ohiturak eta bizimodua azaltzeko museoa egitea da beste proiektu horietako bat, eta museoa egiten hasteko nahiz Txuringadiko errota txukuntzeko 3 milioi pezetako dirulaguntza eman berri dio Eusko Jaularitzak. Hori dela eta etorri zen turismo sailburua herrira.




3 milioi pezetako dirulaguntza jaso su udalak

**JOSE ANTONIO URBIETA
GARRAIOAK**

**URTE OSOAN
SU EGURRA**

BELARRA ETA LASTOA BERE GARAIAN



Lege Zaharren Enparantza, 4 -2
ASTEASU (Gipuzkoa)
☎ 69 26 76 - 69 30 92

KIROL JANTZIAK


Liraura

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47

ANDOAIN

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

 *fundazioa*
fundación

ABERTZALE IZAN AL DAITEKE EUSKARARIK GABE?

Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolaturiko mahaingurua

Euskal Herrian Euskaraz-eko kide den Ainhoa Elizondok, HBko ordezkari den Petrikorenak, EAKo Xabier Huizik, eta azkenik, EAJ-PNVeko Garbiñe Egibarrek hartu zuten parte mahainguruan. Jarrai erakundeak, entzulegoaren artetik, bere iritzia emateko aukera ere izan zuen. Abertzaletasuna eta euskara izan zuten aztergai, eta parte hartzaile guztiak bat etorri ziren euskaldun guztiak abertzale ez zirela azaldu zutenean. Era berean, euskararik ez dakiten abertzaleak ere badaudela azpimarratu zuten.

Abertzalea, euskal aberria maitatu eta bere alde lan egiten duen pertsona zela esan zuten partaideek. Horrezaz gain, euskal proiektu abertzale bat gauzatzeko euskararen presentzia ezinbestekotzat jo zuten. Mahainguruan eztabaida piztu zuen gaiak, euskaldunok erdara edota erdaldunekiko izan behar dugun jarrera izan zen. Horrela, EAJ-PNVko eta EAKo ordezkariak pertsona elebidun izatearen aberastasuna azpimarratu zuten, eta erdaldunen parean, bi hizkuntza eta kultura ezberdin ezagutzera abantailatzen jo zuten. "Euskal Herria eleanitza behar du izan. Euskararen presentzia txikiagoa den arren, gatazka baten aurrean euskara bera aterako da gaitzaile, eta beraz, erdaldunak euskara ikas dezaten bereganatu behar ditugu, baina ez inposizio bidez" azaldu zuen Garbiñe Egibarrek. Xabier Huizik euskararen alde lan egiteko, kakoa proiektu kultural euskaldun horren erabiltzaileengan zegoela azaldu zuen: "Euskal kulturako produktu asko dago, baina guk gero, ez dugu kontsumitzen. Kilometrotara edota Durangoko azokara joan, baina gero, ez dugu beste ezer gehiago egiten. Horrezaz gain, erdarazko liburu bat irakurtzeak ez dugu erdaldunago egiten. Erdaldunek ez duten bi hizkuntzen aberastasuna dugu guk".

Euskara eta erdararen arteko desoreka

J.J. Petrikorenak euskara eta erdararen arteko desoreka azpimarratu zuen: "Euskarak lehen mailako lekua behar du. Gaitzaile historikoak gara, eta ezer egiten ez badugu berdin jarraituko dugun beti. Aurrerapausuak eman diren arren, euskara oinarritzko elementu izatera atlegatzeko bide asko geratzen da oraindik". Ainhoa Elizondok, EHEko kideak, euskara eta erdara

neurri berean ezin direla erabili azaldu zuen: "Arrazoi historiko, soziologiko, psikologiko eta abarregatik bizkuntza bat bestea baino gehiago erabiltzeko joera dago, eta hemen, euskara beti galtzen ateratzen da. Horregatik, euskarak bere iraupena ziurtatzeko, euskararen aldeko borroka egin behar dugu, eta denak euskaldun garen momentuan izango da gure herria benetan Euskal Herria". Jarrai-koek ere bide hori jarraituz, euskara erasotuta dagoela azpimarratu zuten: "Euskaldunak erdara ikastera behartuak izan garen bezala, erdaldunak euskara ikastera behartu behar ditugu; beharra sortzen ez badiegu ez dute ikasiko".

Iritziak iritzi, partaide guztiak beren bilkuretan euskara erabiltzen zutela azaldu zuten, eta euskararen inguruan aurrerapausu asko egiten ari den arren, euskararekiko egin beharreko lana eta militantzia ezinbestekotzat jo zituzten.



Mahainguruko partehartzaileek euren iritzia azaldu zuten



ONDARRETA TABERNA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Pintxoak

Arkume eta
txerrikume erreak
enkarguz

Ondarreta 9, behea ☎ 59 36 27 ANDOAIN

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

KIROLAK EDURNE

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

HIRUGARREN ADINEKOENTZAT ZERBITZU UGARI

Zaharren egoitza, etxez-etxeko laguntza eta eguneko egoitza zerbitzuak herrian

Etxean zaindu ezin ziren hirugarren adinekoak, orain artean, zaharren egoitzetara joaten ziren. Andoainen 1983. urtetik, zaharren egoitza berria ezarri zenetik, gaur egun arte hirugarren adineko pertsona ugari izan dira bertan. Horrezaz gain, etxez etxeko laguntza eta aurten ezarri den eguneko egoitza hirugarren adineko eta ezingabetuentzako zerbitzuak dira.

Ama Kandida etorbidean dagoen zaharren egoitzan hirugarren adineko 65 pertsona bizi dira. Beraien elbarritasuna eta beste zenbait osasun arazo egoki zaintzeko lekua da egoitza. Elena Arribillaga Gizarte Ongizate batzordeko lehendakariak eta Ana Sanz gizarte laguntzaileak azaldu digutenez, ezinbestekoa da egoitza: *"Bizitzaren momentu batean gure egoerara egokituko den laguntzaren beharrean aurkitzen gara, horri erantzun nabian sortu dira zaharren egoitzak. Herri guztiek ez dituzte zaharren egoitzak baina guk bai, eta horrezaz gain, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditugu."*

Etxez etxeko laguntza

Badira etxean bizitzen jarraitu nahi duten hirugarren adineko pertsonak, baina etxeko lanak egiteko edota beste zenbait gauzetarako laguntza behar dutenak. Irtenbide gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiak etxez etxeko laguntza eskaintzen ari da herrialde osoan.

Martxan hasi zenetik herritarrek erantzun ona eman diote proiektuari: *"Hasieran zaila egiten da kampoko norbait etxera sartzea, baina andoaindarrek barrera ona egin diote zerbitzu honi. Egun, berrogeita hamarretik gora pertsonari eskaintzen zaio zerbitzu hau."* Hala ere, egunean ordu pare bateko laguntza bakarrik gutxi egiten zaien pertsonak ere badira, eta horri erantzun nahian, eguneko egoitza sortu zen.

Eguneko egoitza

Eguneko egoitza 1996ko urtarrilaren bian hasi zen martxan eta berehala bete dira ezarritako plazak. Egun, hamabost pertsonak pasatzen dute bertan eguna. Goizeko hamarretatik arratsaldeko seiak bitartean zaintzen dituzte, eta gainera, etxeraino eraman eta ekartzen dituzte. Egoitza horretan lan terapia bat egiten dute: gimnasiako ariketak, eskulanak, irakurketa, eta abar. Norberaren garbitasuna, bazkaria, siesta eta merienda dira egunero egin beharreko ekintzak. *"Zabarrak eguneko egoitzara ekarriz, zaharren egoitzara sartzea alzeratzen dugu, baina ez egoitza txarra delako, baizik eta kopuru mugatu bat bakarrik bizi abal daitekeelako."* Terapia honetan lan egiten dutenek azaldu digutenez, zaharrak ongi pasatzen dute: *"Ondo pasatzen dugu guztiok. Txisteak kontatu, eskulanak egin, farre egin... Azken egunotan Gabonetako postalak egiten aritu gara, eta lan ugari izan arren, umore onean aritu gara"*.

Eguneko egoitzara sartu ahal izateko osasun azterketa bat egin behar izaten da, eta horrezaz gain, herrian erroldatuta egon behar du interesatuak. Bestalde, adina edota elbarritasun batengatik laguntza behar duen pertsona izan behar du. Azkenik, eguneko egoitzarako beste bi plaza gehitzeko asmotan dira arduradunak.



Gabonetako postalak egiten aritu dira



LEIZARAN

MARKOZKETA TAILERRA S.L.

Kaleberria, 40
20140 ANDOAIN
TEL.: 59 33 39
FAX. 30 01 57

OLEAK, MARRAZKIAK, AKUARELAK, ESKUZ EGINDAKO ARGAZKI EUSKARRIAK

minihost

**LIBURUDENDA
PAPERDENDA**

Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57 -
ANDOAIN

BURUNTZALDEA, UDALEN KIROL ZERBITZU MANKOMUNATUA

Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo herritarren zerbitzua

Zure herriko kiroldegiko txartelarekin mankomunitateko gainerako herrietako kirol-zerbitzuak erabili ahal izango dituzu. Beraz, zure kiroldegian eskaintzen ez diren zerbitzuak erabiltzea posible duzu, beti ere ezarritako ordutegi eta arauak jarraituz.

Gabonetan, abenduaren 31ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an Allurralde kiroldegia bere ateak itxi egingo ditu, beste herrietako kiroldegiek bezalaxe. Hala ere, zerbitzuaz gozatzeko aukera izango da gainerako egunetan. Horrela, ikastaroen artean gimnasia, *fitness*-a, *yoga*, *aerobic*-a, igeriketa eta *aqua-gym* egiteko aukera izango da. *Squash*-a, pista, sauna, *solarium*-a eta masaia zerbitzuak ere eskainiko dira.

Txartelak eta ordutegia

Duela gutxi bukatu da txartelak berritzeko epea eta kiroldegiko arduradunek azaldu digutenez, oraindik ezin da baloraziorik egin: *"Egun gutxi dira txartelak berritzeko epea bukatu dela, eta oraindik ezin da esan zenbat jende eman duen izena"*. Abonatu ez direnak kiroldegira sartu ahal izateko sarrera ordaindu beharko dute: gazteek 300 pezeta eta helduek 550 pezeta.

Informazio gehiago Allurralde kiroldegiko 300147 telefonora deituta.

Neguko ordutegia

Astegunetan: 07:00 - 13:00 — 15:00 - 22:15*

Larunbatetan: 09:00 - 13:00 — 16:00 - 20:00

Jaiegunetan: 09:00 - 13:00

(* igerilekua: 21:00ak arte



ANDOAINDAR PRESOEN ESKUBIDEA DA EUSKAL HERRIRATZEA

Kanpainaren ardatza sinadura bilketa

Kanpaina berri horrekin 3.000 sinadura biltzeko helburua dute, preso andoaindarrak Euskal Herriko espetxeetara ekarriak izan daitezzen. Horretarako, egunotan hasiak dira herriko kaleetan sinadurak biltzen. Sinadura horiek Justizia eta Barne Ministeritzetara eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordera bidaliko dituzte.

Andoaingo presoek giza eskubideen aldeko batzordeak martxan jarri berri duen kanpainak, legeak, Europako Legebiltzarrak, eta Eusko Legebiltzarrak erabakitakoa betetzea eskatzen du: presoek euren zigorrak beraien bizileku naturaleratik ahalik eta gertuen betetzea, alegia, Horretarako, sinadura bilketa egin da herrian, eta abenduaren 31ean, berriz. Arteta kalean sinadurak biltzeko mahaiak jarriko dira.

Sinadurak biltzeko ontziak

Era berean, abenduaren 16tik urtarrilaren 15era kanpainaren aldeko sinadurak biltzeko ontziak jarriko dira honako egoitza publikoetan: Udaletxean, Gizarte Zerbitzuen egoitza, Galardi haurtzaindegian, Urigain kultur etxean, Bake epaitegian, Allurralde kiroldegian, liburutegian eta ludotekan.

Presoen giza eskubideen aldeko batzordeak kanpaina horren berri eta herriko sei presoek helbidea ezagutzera emateko foileto informatibo bat ateratu du.

fotocolor

ERREBELATUA ORDU EAN


Ezkontza, Jaunartze, e.a. en erreportaiak. Lan Industrialak



Jose Ignacio Unanue
Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN

Zabala

Ordukari Bitxitegia



RACER

LOTUS

TISSOT

SEIKO

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - HERNANI

ASTEASUKO ODOL EMAILEAK

Urtean hirutan ematen dute odola

Berrogeita hamar pertsona inguru biltzen dira Asteasun odola emateko. Hemezortzi urtetik gorakoak dira guztiak, eta gehienak odola sarritan eman ohi dutenak dira. Azkeneko txandan, hiru lagun gehiagok eman zuten odola, eta odola eman nahi baina ezin emanik gelditu zen herritarrik ere izan zen. Beharra dutenei laguntzeko ematen dute odola asteasuarrek, eta indarrak berreskuratzeke, merienda ederra egiten dute odola eman eta gero. Gainera, herriko odol emaleen arteko bazkari bat egitekotan daude.

egiten dira odola ona eta garbia dela ziurtatzeko. Behin galdeketa eginda, etzaulkietan etzan eta 400 cc kubiko odol ateratzen diote bakoitzari. *"bamar-hamabost minututan zehar, gutxi gora-behera"*.

Odol emaleak behar dira

Sendagilearen esanetan, orain neguan gaixotasunak ugaritu egiten direla eta, odol emaleen beharra handitu egiten da: *"Obiko odol emaleak ere gaixotu egiten baitira, eta beraz, ez daude odola emateko egoera onean"*. Gainera, urtetik urtera odol emaleen kopurua handiagoa den arren, aurtun odol emaleen kopurua ez dela asko handitu esan digute.

Odola, 18-65 urte bitarteko edonork eman dezake. Hori bai, gaixotasun larriarik eta jardun arriskutsurik izan ez dutenak badira, noski. Bestalde, 50 kilo baino gehiago pisatu behar dute, eta anemia ez dutela jakiteko frogatxo bat egiten diete bertan, *"anemia izanez gero ez baitiegu odolik ateratzen"*, esan digu sendagileak. Bestalde, odola eman baino hiru ordu lehenago edo, janari pisutsuak ez jatea eskatzen diete odol emaleei. Odol emaleei tentsioa hartzen diete lehenik eta behin, eta gero, galdeketa bati erantzuten diote gaixotasun larriarik edota jardun arriskutsurik izan ez dutela ziurtatzeko: *"Lehenengo aldiz odola eman behar duenari elkarrizketa sakonagoa egiten diogu"*, adierazi digu sendagileak. Hala ere, behin odola jaso ondoren, analisiak



Tentsioa hartzea behar beharrezkoa da.

BADATOZ ERREGEAK!

Opariak emango dizkiete lau urte bitarteko haurrei

Meltxor, Gaxpar eta Baltasar erregeak zaldiz etorriko dira urtarrilaren bostean Asteasura. Hileritik irten eta plaza bitarteko ibilbidea egingo dute erregeek, eta trikitixa, txistu nahiz danbor soinuek alaituko dute bidea. Gazteak, zuziak eskuan hartuta, erregeen ondoan joango dira bidea argitzen. Plaza ailegatu ondoren, estalpera joango dira erregeak eta bertan banatuko dizkiete opariak lau urte bitarteko haurrei. Estalpean egingo dituzten dantzek eta kantuek emango diete amaiera erregeen ibilaldiari. Ondoren, erregeen oparien zain, lo eta amets egiteko garaia izango dute herriko haur eta haur ez diren guztiak.

Parte hartzaileen afaria

Erregeen ibilaldian parte hartu duten guztiak afari bat egiten dute ondoren, eta afaria, jendea ibilaldian irteke nola ongi pasatzeko aitzakia izaten da. Herriko gazteek antolatzen dute ibilaldi osoa, eta garai batean, Santa Ageda egunean biltzen zuten diruarekin antolatzen zuten. Orain, ordea, udalaren dirulaguntza jasotzen dute.



HAUR ETA GAZTETXOEN HEZKUNTZARI BURUZKO HITZALDIAK

Antonio Jorrin: "Familiaren papera oso garrantzitsua da haurren heziketan"

Gizarte Ongizateko batzordeak antolatuta, eta hala herriko ikastetxeen nola haurtzaindegiaren laguntzaz, adin-txikiko haurren heziketari buruzko hitzaldiak eskaini dira herrian. Guraso ugari hurbildu dira hitzaldietara, amak gehienbat, eta haurraren garapenaz, prebentzioaz, eta osasunaz aritu dira solasean bertan. Azken hitzaldia, familiak haurraren heziketan duen eragina eta garrantziari buruzkoa alegia, Antonio Jorrin pedagogoak eskaini zuen.

Antonio Jorrin pedagogoak familiak, eta bereziki gurasoak, haurraren heziketan duen garrantzia azaldu zuen. Era berean, haurrarendik gurasoek zer ikasi handia dutela azpimarratu zuen. Bestalde, familia modu batekoa ala bestekoa izatea, lanak, etxebizitzak eta antzeko faktoreek asko eragiten dutela esan

zuen. "borrek familiaren hezitzaile-funtzioan asko eragiten duelarik". Bestalde, familia bateko haur bakoitza ezberdina eta berezia dela esan zuen, bakoitzari dagokion tratua eskaini behar zaiola azalduz: "Haur bakoitzari gauzak bere erara egiteko aukera eman behar zaio; bera izaten utzi behar zaio, eta gainera, bere kalitateak azpimarratu behar zaizkio". Horrezaz gain, gurasoek haurrari dioten maitasuna azaldu behar dute, baita ere haurraren duten konfidantza. Antonio Jorrinek haurrak ikusi dutenaren ispilu direla azaldu zuen: "Haurra arduragabea, biolentoa eta abar geiago izatearen arrazoiak, egoera hori nonbait ikusi duelako da". Familia gurasoek eta seme-alabek osatzen dutela gogorarazi zuen pedagogoak, guztiak familiaren funtzionamenduan parte hartu behar dutela esanez. Azkenik haurra era positibo batean hezi behar dela esan zuen: "Haurrak egiten dituen gauzak guztiak ulertu egin behar ditugu, gaizki egin duena horrela zergatik egin duen aztertuz eta ongi egin duena goraituz".



Udal euskaltegian eman dituzte bitzaldiak

ERDARAZ EUSKARAZ BAINO GEHIAGO

EKBren *Eman euskarari berea* kanpainaren barruan, hainbat ekimen garatu da Billabonan. Euskararen egoera ez dela normalizatu salatzeke, eta era berean, euskararen erabilera eta presentziaren datu errealak azaltzeko burutu dira ekintza horiek guztiak. Billabonako bi euskaltegiek (Udal Euskaltegiak eta AEFK-ak), udaleko euskara batzordeak, Amabilak eta beste zenbait herritarrek osaturiko taldeak bildu eta kaleratu ditu datu horiek. Bestalde, herriko elkarte, alderdi eta erakunde ugariaren atxikimendua izan du kanpainak.

Kaleratu dituzten datuak:

	EUSKALDUNAK	ERDALDUNAK
Herriko elkarteak:	2	2
Osasun egoitzako erizainak:	2	4
Sendagileak:	2	3
Pediatrak:	1	1
Idazkariak:	2	2
Emaginak:	-	1
Ginekologoak:	-	1
Banketxeak: Barne funtzionamendua erdaraz; lehiatiko langileak guztiak euskaldunak bat izan ezik; lehenengo hitza erdaraz, normalean		

SAN SILVESTRE EGUNEKO LASTERKETA

Hamahirugarren aldiz egingo da aurtengo San Silvestre eguneko lasterketa. Urteko azken eguneko korrika saio hau, Zizurkilgo Urkamendi eta Billabonako Zumbeltz elkarteek antolatzen dute. Arratsaldeko 16:30etan hasiko da lasterketa, eta ez da ezer ordaindu behar bertan parte hartzeko. Hamalau urtetik gorakoek 4 buelta eman behar dizkiote ibilbideari; ia zortzi kilometro korritu beharko dituzte. Gaztetxoek, ordea, bi bira emango dizkiote zirkuitoari. Lasterketaren amaieran sariak zozketatuko dira helmugara iristen diren guztien artean.

ANDER ARANBURU PILOTARIA GIPUZKOAKO HIRUGARRENA

Behar Zana elkarteko hemezortzi urteko pilotaria da Ander Aranburu zizurkildarra. Abadiñoko Antxia pilotaria bikote zuela jokatu ditu ETB-DVko pilota partiduak, eta final laurdenetara iristea lortu zuten. Oraingoan, ordea, Gipuzkoako hirugarrena izatea lortu du banakako eskuzko txapelketan.


Aiurri: Gipuzkoako eskuzko banakako txapelketan hirugarren postua lortu duzu. Asko kostatu al zaizu?

Ander Aranburu: Gipuzkoako txapela partidu gehien irabazten dituen pilotariak lortzen du. Azken

partidua Bergarako Gutierrezen aurka jokatu nuen. Bergaran, eta Zizurkilen beraren aurka jokatu nuen partidua erraz irabazi nuen arren, oraingoan gauzak ez dira irten nahi bezala. Hala ere, Euskadiko txapelketako partiduak jokatzeke aukera izango dut.

Ai.: Zein partidu gebiagotan hartu duzu parte orain artean?

A.A.: ETB-DVko bi partidu jokatu ditugu, eta final laurdenetara iristea lortu genuen Abadiñoko Antxia eta biok, nabiz eta azken partidu hori galdu. ETB-DVko pilota partiduak jokatzeke beraiak deitzen dizute; ezin du nahi duen guztiak jokatu. Bestalde, Intxaurrondon antolatzen duten txapelketan adibidez, parte hartu dugun azken bi urteetan finalera iristea lortu dugu. ■



Ander Aranburu pilotaria

BEHAR ZANA ELKARTEAREN OHARRAK

Askainen (Iparraldean) Hasparneko pilotarien aurka joko-garbiko finala jokatu zuten Sergio Sanchez eta Jon Alejo herriko pilotariak galdu egin zuten partidua. Hala ere, Behar Zanak Larraitx Etxaniz eta Olatz Ugartemendiak osaturiko bikoteak Gipuzkoako paleta txapelketa irabazi du. Agurtzane Ugalde eta Amaia Etxeberriak osaturiko bikoteak, berriz, bigarren postua lortu du. Bestalde, Behar Zanak zozketa-tzeko zituen sariak lapurtu egin dituzten arren, sari berriak jarriko dituztela esan digute elkarteko kideek. Hala ere, eta lapurretaren ondorioz, elkar-teak egin nahi zituen hainbat gauza ezin izango dituzte burutu zozketatik lortuko duten dirua ez baita nahikoa izango.

PRESOAK EUSKAL HERRIRATZEKO MANIFESTAZIO IXILA

Urtarrilaren 11ean, arratsaldeko seietan, Billabonan

Aduna, Alkiza, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalek deituta manifestazio ixila egingo da urtarrilaren 11ean "Denok batera, presoak Euskal Herrira" lelopean. Billabonako plazatik irtengo da manifestazioa arratsaldeko seietan, eta amaitera Zizurkilgo plazan izango da. Presoak Euskal Herrira ekartzeko gaiaz arduratzen diren Ernioebeako udal jarraipen batzordeen ekimenez, aipaturiko udalek antolatu duten manifestazioa izango da hau. Bestalde, manifestazio horrekiko Tolosaldeko udal, erakunde eta pertsonaia ezagunen atxikimenduak biltzen ari dira.



J. I. GABILONDO (Alkizako alkatea)
J. ARANBURU (Zizurkilgo alkatea)
J. MUJICA (Billabonako alkatea)
A. AGIRRE (Senideak-eko ordezkaria)
P. GARMENDIA (Jarraipen batzordeko ordezkaria)
J. ZABALA (Adunako alkatea)
J. TEJERIA (Larraulgo alkatea)
X. GURRUTXAGA (Asteasuko zinegotzia)



ZAIREKOAK LAGUNTZEKO KANPAINA

Itsulapikoak jarri dituzte denda eta tabernetan

Zaireko gerrateak sortu dituen behartsuei laguntzeko kanpaina jarri du martxan Zizurkilgo Sendotza taldeak. Eguberrietan burutzen ari diren kanpainaren helburua, Zairera bidaltzeko dirua biltzea da. Horretarako, itsulapikoak jarri dituzte Billabona eta Zizurkilgo taberna eta dendetan. "Beharreen daudenei laguntza txiki bat emateko modua da bertara dirua botatzea", esan digute Sendotza taldeko lagunek.

pegatinak jarri eta dirua biltzera. Partaide bakoitzak bostehun pezeta jarri ditu kanpaina egiteko behar izan dituzten materialak erosteko, eta horrelako kanpainak egiteko gogoia dutela azaldu digute. Bestalde, bilduko duten dirua oraindik ez dakite Zaire laguntzeko zein erakunderi emango dioten.



Diru bilketa zairekoak laguntzeko

Sendotza egiten ari diren erdarazko taldekoei bururatu zitzaizen Zaireko behartsuak laguntzeko kanpaina bat egitea. Bederatzi neskatoek osatzen duten taldeak, euskarazko taldeei ideia azaldu ondoren, kanpaina Sendotza egiten ari diren guztiek aurrera eramatea proposatu zuten. Gauzak horrela, itsulapikoak egin eta denda nahiz tabernetan jarri zituzten ondoren. Horrezaz gain, Tolosako ferria joan ziren egun batean

TOUR-EKO LEHENENGO EUSKALDUNARI OMENALDIA

Abenduaren 27an egingo dute afaria Urkamendin

Abraham Olano txirrindularia omenduko dute gaur Urkamendi elkar-
teak urtero antolatzen duen afarian. Izan ere, Tour-ean posturik
onena lortu duen euskalduna omendu ohi dute urtero, eta azken
bost urteotan Miguel Indurain etorri izan da Zizurkilera. Abraham Olano
etortzeaz gain, Olinpiadetan parte hartu duten txirrindulari euskaldunak
gonbidatu dituzte afarira Urkamendiko lagunek: Joane Somarriba, Ainhoa
Bengoa, Roberto Lezaun eta Jokin Mujika. Afaria Zentro jatetxeak presta-
tuko du, eta urtero etorri ohi diren txirrindulariak nahiz kirolariak ere azal-
duko dira bertara. Bestalde, aurten omenduko duten herriko kirolaria An-
doni Imaz futbolaria izango da.

GARBI

*Drogeria
Lurrindenda*

*Jai zoriontsuak
ifaro*

TELEFONOAK:
DENDA: 59 21 57
ETXEKOAK: 59 07 88 - 59 12 23
Kale Nagusia, 18 - ANDOAIN

S T O P
LIBURUDENDA
TESTU LIBURUAK
AUKERA ZABALA LIBURUTAN
(Ingelesez, frantsesez,
italieraz...)
Agustin Leitza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

FERRETERIA
GOROSTIDI
BURDINDEGIA
SUKALDERAKO TRESNERIA
Nagusia, 3 — ☎ 59 14 80 — ANDOAIN
Nagusia, 18 — ☎ 69 22 37 — BILLABONA

ESNEBEHIENTZAKO JATENA BERRIA

Bi albaitero eta Alegi pentsu etxearen artean eginiko produktua da

Europar esnebehiak dituzten ukuiluak asko hazi dira urteetan zehar. Horrela, egoera horrek, zenbait baserritar esnebehi asko edukitzera bultzatu du, eta beste batzuek berriz, esnebehiak kentzea behartu ditu. Esnebehiak esne asko emateko, baserritarrek kalitatezko pentsua eta bazka erostearen garrantziaz jabetu dira. Behar horri erantzuteko Xabier Pellejero eta Imanol Azpirozek, Alegi pentsu fabrikarekin batera, behiak elikatzeke jatena berri bat jarri dute salgai.

Xabier Pellejerok azaldu digunez, Gipuzkoan bazka mota berria den arren, Espainian lehenagotik ezagutzen da. Esnebehiak bazka (belarra eta arto- gozoa gehienbat) eta pentsua egunean bitan eman beharrean, dena batera nahastuta ematearen aldekoak dira bi albaitero hauek. Lehengai eta osagai ezberdin askorekin egiten dira nahasketa horiek: "Nahasketa horien bidez, eguneko jana eman ondoren, ganaduak, nahi duenean jango du gero, jatena behartu gabe. Jana bobeto aprobetxatuko du eta digestioa ere bobeto egingo du".

Abantailak eta desabantailak


Bazka mota berri horren abantailen artean, elikagaien aprobetxamendu egokia da aipagarriena. Horrez gain, esnebehiak esnea denbora luzeagoan ematea lortzen da eta esne produkzioa gehitu egiten da, umaldi bat izaten dutelako horrela elikatutako behiek. Abantailak asko dira baina baditu desabantailak ere. Horien artean, elikagaien nahasketa egiteko *carro unicif* aparailua izan beharra. Gainera, nahasketa horren prezioa garestiagoa da, eta abantailak ikusteko denbora bat pasa behar da. Xabier Pellejeroren hitzetan, ordea, abantailak garrantzitsuagoak dira desabantailak baino.

Bi albaitero horiek Alegi pentsu etxean egiten dituzte nahasketak, eta ondoren, baserritarrei eramaten dizkiete. Horrela, baserritarrek ez dute *carro unicif* hori

erosi beharrik: "Baserritar batzuek beraien egiten dituzte nahasketak horiek. Beste batzuk berriz, gure produktuen erosleak dira".

Nahasketa motak

Nahasketa mota ugari egiten dituzte albaitero horiek, baserritar bakoitzaren beharren arabera egindako nahasketak baitira. Horien artean, nahasketa bustia eta lehorra ditugu. Nahasketa bustian, nahasketa osoa eta partziala egiten dira, eta beraien arteko ezberdintasunik handiena alpapa eta arto-gozo kopuruan dago. Nahasketa osoa belarra duten baserritarrek etxean egiten dute, baina belarrik ez duen nahasketa osoa ere egiten dute bi albaiteriek. Nahasketa partziala, belar produkzio onak dituzten baserritarrentzat da: belarra baserritarrek jartzen dute eta gainerakoa erosi egiten dute. Nahasketa lehorra berriz, belar produkzio nahikoa duten baserritarrentzat da. "Hala ere, baserritar bakoitzaren beharren arabera nabasketak egiten ditugu. Horrez gain, egunero gure nahasketak banatzeko kamioia erosi dugu eta oraindik biru hilabete daramagun arren, piskanaka jendeak gure nahasketak erosi dituelako itxaropena dugu".



Behiesneen ekoizpena handitzeko bazka



**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO HALTZARIAK**



Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxe 30 03 45
ANDOAIN



Burdinezko piezen egintza,
planuen arabera.
Pieza hidraulikoak eta neumatikoak.
Mekanizazioa.

Urnietako bidea, z/g. ANDOAIN
☎ 59 04 52 - 59 05 08

URTE BERRI ON!

Urte zaharra agurtu eta berria ospatzeko moduak

Gobonetan herritar guztiak pozik daudela dirudi. Opariak erosi, turroia edota jaki goxoak jan, zorion txartelak idatzi eta abar luze bat egiten dugu egun horietan. Urte zaharra agurtzeko eta urte berria ospatzeko ere gauza ugari egiten dugu: hamabi mahats-ale jan, egun batzuetako bidaia egin, barruko arropa gorria jantzi, edota, urte berriko lehen egunean, mendira igo eta salda hartzen dutenak ere badira. Era batera edo bestera, egun horretan etxekeokin edota lagun giroan ongi pasatzea da helburua.

Bada zenbait ohitura bere esanahia edota jatorria jakin gabe urtero-urtero ospatzen ditugunak. Urte zahar gauen afaldu eta hamabi kanpaien zain egoten gara mahats-aleak norik lehenago jango dituen ikusteko. Turroi eta txanpaina ugari jan eta edan ondoren, oraindik, ez da festa bukatu. Etxeko gazteenak lagunekin tabernaz taberna ibiliko dira, denek urte berri ona opa eta bi musu ematen.

Mendi igoera

Gauean parrandaz parranda dabiltzan gazte asko goizeko seiretan Adarra mendira abiatuko dira. Hogei urte inguru igaro dira andoaindarrek urtarrilaren 1ean Adarrara salda hartzera joaten hasi zirenetik. Euskalduna mendigoizale taldekoak dira motxiletan salda eramateaz arduratzen direnak. Beraiek esan digutenez, Franco garaian du jatorria mendi igoera horrek: *"Franco garaian ikurrina jartzea debekaturik zegoen, eta beraz, mendira igozten ginen ikurrina jartzera. Gaur egun, beste era batera, noski, obitura bori mantentzen ari gara."* Donostia, Lasarte eta inguruko herrietatik etorritako jendea biltzen da urtero Adarran: mila pertsonatik gora Meza entzun ondoren, txanpaina edanez eta turroia janez ospatzen dute urte berria.

Billabonan ere badira egun horretan Loatzo mendira igotzen diren herritarrak. Orain arte, jendea, ordu ezberdinetan eta bakoitzak nahi zuenean igo izan da. Aurten, ordea, Aizkardi mendizale elkarteak ordu

jakin bat jarri dute guztiak batera igotzeko.

Kotiloia

Badira nagikeriagatik edota mendira igotzea gustoko ez dutelako beste festa mota batzuetara joaten direnak. Jendeari kotilioietara joaten den galdetu diogunean gehienek ezetz erantzun digute. Beterri-Aiztondo aldeko herrietan ez dago kotilioi edo antzeko festarik egiteko ohiturarik, eta horren froga da herriko zenbait jatetxek egun horretan itxi egiten dutela. Baina bada zenbait herritar Donostian edota Tolosan ospatzen diren festa horietara joaten direnak: *"Festa horietara sartzeko gizonezkoak traje eta gorbataz eta emakumezkoak gaueko soinekoz jantzita joatea*

ezinbestekoa da. Festa batzuetan afaria ere eskaintzen da, besteetan ordea, ez. Sarrerak 8.000-11.000 pezeta balio du" esan digute.

"1909. urtea geroztik jaten ditugu mahats-aleak urte zahar gauean"

Bada urte berrian zorte ona edukitzearren urteko azken egunetan egiten den zenbait gauza. Ezagunena hamabi mahats-aleak jatearena da. Egun etxe gehienetan jaten dira, baina zergatik mahatsak? Ohitura horren jatorria 1909. urtean aurkitu dugu. Urte horretan mahats produkzio handia izan zen Espainian, eta horiek saldu ahal izateko, mahats-biltzaileek, "zortearen mahats-aleak" izenarekin izendatu zituzten. Ondorioz, urte zaharretako hamabi mahats-aleak jaten hasi ziren orduan, eta gaur egun arte iraun duen ohitura bilakatu da. Bestalde, Italian hamabi goilarakada lenteja hartzen dituzte urte zaharretan, eta Urdigainen



Adarrara igoera

herriko iturritik ura hartu eta korrika, ura isuri gabe, herritar guztiei ematen zaie. Beterri-Aiztondoko herrietan ez da ezer berezirik egiten, ordea. Hala ere, azken urteetan askok hartu duten ohitura baten berri ere izan dugu. Urtea amaitzeko, zorte ona izateko itxaropenarekin, zenbait gizonezko eta emakumezko azpiko arropa gorria janzen dute. Mertzerietan egun horietan azpiko arropa gorri gehiago saltzen ote duten galdetu diegunean, zerbait gehiago saltzen dela esan digute: *"Badira azpiko arropa gorria erosten dutenak, baina normalean, gehienak gazteak dira. Ez dute asko gastatu nahi izaten eta urtean zehar erabiltzeko asmoarekin erosten dute."* Andoaingo Pepi mertzerikoak, ordea, ohiturari jarraituz azpiko arropa hori erabili ondoren erre eta urtero herriak erosi behar direla esan digu. Jendeak, aldiz, urte berrian estreinatu eta urtean zehar erabiltzen ditu.

Afaria

Etxean afaldu beharrean jatetxe batera joatea ere urtea agurtzeko beste modu bat da. Gure herrietako jatetxe gehienak egun horretan lanik egiten ez duten arren, Donostia aldean menu bereziak prestatzen dituen jatetxe ugari dago. Egunero jan ohi ez diren jakiak eta edariak zerbitzatzen dituzte, musika-rekin girotuta eta prezioak altuak izaten dira, noski. Beterri-Aizton-

doko herritar gehienak, ordea, etxean egiten dute gabon zaharretako afaria.

"Egun horietan eskiatzera joateko ohitura hedatzen ari da"

Festa horiek gustoko ez dituztenek, bestalde, bidaiari egiteko aukera dute. Azken urteetan bidai agentziek egun horietarako bidai bereziak eskaintzen dituzte. Gehienak eskiatzera joaten dira Pirineotara, Andorrara, edota Alpetara. Andoain-

go *Gbeisa* bidai agentziko arduradunak esan digunez, oraindik ez dago bidaiatzeko ohitura handirik: *"Espainiako jendeak bidaiatzeko ohitura bandiagoa du. Euskal Herrietik, oraindik, ez da jende asko ateratzen egun horietan. Hemengo ohitura etxean, familiarekin, gertzea da"*.

Ohiturak ohitura dira eta era batera edo bestera, konturatu gabe, 1996. urtea agurtzeko garaia iritsi zaigu guztioi. Beti bezala, 1997. urte ona eta osasunez bete izatea opa ohi diegu gure senide eta lagunei. Guk, lerro hauen bidez, urte zoriontsua opa diegu AIURRIko irakurle guztiei. Zorionak eta urte berri on!



Gazte askok gaupasa egiten dute urte zahar gauean

GOROSTI
HERBORISTERIA

- ✓ DIETISTA
- ✓ BARATZAKO
- FRUITU NATURALAK
- ✓ INTSENTSUA
- ✓ KANDELAK

Txermin kalea 13, behea
☎ 69 20 56
Billabona

ESKU LANAK **PUNTUZ PUNTU**

Puntu - Kruzean
espezializatutako denda

- Hariak • Ehunak
- Grafikoak • Kit-ak
- Petit-point
- Gantxiloa

Zumalakarregi, 7
TOLOSA
☎ 65 28 81

AMAIUR
KALE NAGUSIA, 24 ☎ 69 16 11

BILLABONA

OPARIAK

LURRUNDEGI

JANTZIAK

BITXITEGIA

OSAGIAK

Urte berri on

Andoain

PEDRO AIZPURUA MUSIKALARIA

Musika eta letra munduko pertsona aipagarrienetako bat, pertsona umila eta bihozbera bera, gertutik ezagutzeko aukera izan dugu. Pertsona famatu horren bizitzaren berri –Euskal Herrian

baino Castillan ezagunagoa– Aiu- rriko orrietan idatzi nahi izan dugu, Andoaingo semea izateaga- tik hain zuzen, Kaletxikin jaioa duela 72 urte; Pedro Aizpurua Zalacain jauna.

Galdera: Zeintzuk dira zure sustraiak eta zure lehen ikasketak?

Pedro Aizpurua: Andoainen jaio nintzen. Kaletxikin, 1924. urtean. Umetako nire ikasketa nagusiak La Salleko Anaiekin egin nituenak izan ziren. Horrezaz gain, solfeoa eta pianoa ikasi nituen Alberto Agirre jaunaren eskutik. Hamar urterekin parro- kiko organo-joleari la- guntzen nion kantu ba- tzuetan.

-Nondik nora etorri zitzaizun apaiz izateko bokazioa?

P.A.: Hamaika urtere- kin Comillas-eko (San- tander) Unibertsitate eta Seminaria joan nin- tzen. Humanitate ikaske- tak egin nituen bertan sei urtez, eta ondoren, Uni- bertsitatean, Filosofia eta Teologia ikasketak buru- tu nituen. Guztira hamabiru urte izan ziren. Urte horietan zehar, piano eta armonia ikasketak egiten ari nintzen Donostian Luis Urteaga jaunarekin. Zer- txobait beranduago, kontrapuntu, fuga eta kompo- sizio ikasketak egin nituen Francisco Escudero jau- narekin.

-Zergatik joan zinen Orihuela-Alicanteko ka- tedralera?

P.A.: Nabi gabe gertatzen zaizkizun gauza bo- rrietako bat izan zen. Hernaniko Goldaraz jauna. Orihuela-Alicanteko gotzaina orduan, Filosofian



graduaturako, eta gai- nera, musika ikasketak zituen apaiz bat behar zuen. Gauzak borrelak, eta oposaketak egin on- doren, kaperako maisu kalonje gisa Orihuela- Alicanteko katedralera eramán ninduen. Filo- sofiko irakasle gisa ari- tu nintzen bertako semi- narioan irakasten eta seminaristak musikaren munduan bezitzen. Ho- rrezaz gain, nire lanbi- dea betetzen nuen kate- dralean.

-1960. urtean Valla- dolidera joan zinen. Zergatik?

P.A.: Goldaraz jau- nak, Valladolideko ar- tzapezpiku izatera hel- du zenak, hiri horreta- ra trasladatu ninduen, katedral metropolitarr- ko kaperako maisu ka- lonje izateko. Vicente Goicoechea musikari

euskaldun bandiaren ondorengo izateko oborea eduki nuen.

-Egun, Valladolideko musika kontserbatorio- ko katedralikoa zara, eta gainera, bertako zu- zendaria izan zara. Esaiguzu zerbait horri buruz.

P.A.: 1970. urtearen inguruan, kontserbatorio- ko koru eta instrumentu taldeko katedra lortzeko aurkeztu egin nintzen, eta lortu egin nuen, gaine- ra. Ondoren, bertako zuzendari izateko aukeratu ninduten. Hamar urte nabikoa dira gure gizarteko beziera musikalaren arazoetatik jabetzeko; baina

bau ez da borretaz hitz egiteko unea. Egun, irakasle emeritua naiz eta musikaren formak ikasgaia bakarrik ematen dut. Kontserbatorioko ganbara-musika korua sortu nuen, eta talde horrekin XVI. mendeko musikaren disko bat grabatu eta kontzertu asko eman genituen. Kontserbatorioko orkestra ere sortu nuen. Denboraldi batean musikaren kritika egin nuen biriko egunkari eta irrati emisora batean.

-Esaiguzu zure konpositore izaeraz zertxobait.

P.A.: Nire konposizioak hiru multzotan sailka daitezke: lehenak, erlijiosoak, katedralari zuzendutakoak. Bigarrenak, erlijioso libreak direlakoak, "Tesoro Sacro Musical" eta "Melodías" aldizkarietan argitaratu ditudanak, baita Euskadiko liturgi-batzordeak argitaratutakoak ere. Azkenik, konposizio profanoak piano, bi piano, organo, orkestra eta koruarentzat. Orkestra eta koruarentzat egin nuen "Cantata de las Edades del Hombre" konposizioa azpimarratuko nuke, musika elektro-akustikoa esperimentatu bainuen konposizio horretan. Bi pianorentzako 2FZ izeneko lana ere aipatuko nuke, leku askotan interpretatu baita: Washington, New York, Mosku... Lan horietako batzuen grabazioak ere badaude.

-Zure musikologo alderdiaz zer esango zeniguke?

P.A.: Jacques Chailley frantsesarekin eta Samuel Rubio espainiarrarekin egin nituen ikasketek, eta katedraleko musika-artxiboa eskura izateak, musika esparru honetara bultzatu ninduen. "Revista Española de Musicología" aldizkarian argitaratu ditut nire lanak. Azkenaldian, Arabako Dionisio Preciado jaunaren laguntzarekin, "Cuatro Pasiones de Juan de Anchieta" argitaratu dit.

-Nolatan egin zenuen Andoaingo San Martin elizarako aurtun lehenengoz jo den Salbea?

P.A.: Nire anaia Fernandok zuzentzen duen koruak eskatutako lan bat izan zen. San Juan bezperan interpretatzekoa. Horrexegatik, San Juan martxaren gainean eginiko konposizioa da, era berrikoi eta apalean. Asko poztutzen nau Salbe bori nire herriko parrokiarako egin izanak.

"Asko poztutzen nau Salbea nire herrirako egin izanak"

-Valladolideko Arte Ederretako akademiko ere ba omen zara.

P.A.: Izendapena nire merituak onartuak izateko izan zela diote, nik, ordea, ez dakit meritorik dudan ala ez. Izendapenak, beste inoren aurretik, ni neroni barritu ninduen. Onarpen-ekitaldiko nire hitzaldia, Valladolideko katedral metropolitarrako musika eta musikoei buruzkoa izan zen.

-Gaiaz erabat aldatuz, zer esaten dizu Andoain herriak bertatik kanpo hainbeste urte igaro ondoren?

P.A.: Kaletxiki, niretzat Andoain bori baita, sentimentu iraukor eta itsua da niretzat; etortzen naizen bakoitzean -eta maiz etortzen naiz- amets eder baten moduan bizitzen dudana.

Joaquín María Suescun

ARANBURU

agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALAK GARA

Kaleberria, 26 behea
 ☎ 59 08 14
ANDOAIN

winterthur




ILLUMBE, S.L.
 Autoelektrizitateak

LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK
 Pablo Gorosabel, 48
 ☎ 65 54 76 **TOLOSA**
 Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa
 ☎ 59 24 11 **ANDOAIN**



BRONTE
 ZENTRU
 OPTIKOA

ZURE IKUSMENA GRADUATZEN DUGU
 KONTAKTU LENTEAK
 GORRENTZAKO APARAILUAK

Kale Berria, 36 - ☎ 69 25 25 - **BILLABONA**

TAXI ZIZURKIL

- Taxi zerbitzu orokorra
- Ezindu fisikoentzat ere moldatua

Pello Ezeiza



Tel. 69 08 23 - Tel. mugikorra - 908 - 57 59 00



BRONTE
 ORTOPEDIA

NEURRIRA EGINDAKO ORTESIAK, PROTESIAK eta PLANTILAK
 TAILERRA BERTAN

OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA

Kale Berria, 36 - ☎ 69 25 25 - **BILLABONA**
 RPS. nº 53/96

ESKIA: MODAN EGOTETIK GUZTION ESKU EGOTERA PASA DEN KIROLA

Eskularruak, betaurrekoak, bastoiak, botak eta abar luze bat behar dira eskiatzeko. Material asko behar da beraz, eta gainera, normalean, hemendik kanpora irten behar izaten dugu elur bila. Ondorioz, eskiatzera abertzak edota pijoak joaten direla entzun ohi da, baina topikoari muzin eginez, gaur egun herritar ugari joaten da eskiatzera. Gehienek eski alpinoa egiten dute, nahiz eta fondoko eski edota trabesiako eski egiten dutenak ere gutxi ez diren.



Euskalduna mendigoizale taldeko kideak eski alpinoa egitera joan ohi dira. Astunera, batik bat. Mendi elkarteko partaide izateagatik eski alpinoko pistetan ibiltzeko sarrera merkeagoa dute, eta askok, apartamentua dute Jacan. *"Bertan apartamentua eduki, materiala eraman eta kotxea bete lagun joanez gero, merkeago ateratzen da eskiatzera joatea"*, esan digute andoaindar eskiatzaileek. Izan ere, nahiz eta jende ugari eskiatu, nahikoa garestia da oraindik. Egun baterako eskiak eta botak alokatzea 2.000 pezeta inguru kostatzen da. Horrezaz gain, pistan ibiltzeko sarrera ordaindu behar da (3.100 pza.), eta gainera, eskiatzeko pistak dauden lekuraino joan behar da. Bestalde, Jaca inguruko pistak eskiatzeko onak dira, nahiz eta duela urte batzuk eskiatzaile askok Frantziako pistetara joateko ohitura hartu zuten: *"Hemengo pistak segurua goak dira. Gainera, gauean parranda egiteko aukera dago Jacan. Bestalde, elur artifiziala egiteko maki-*

nak pista guztietan daude; elurrik gabe gelditzeko arriskurik ez dago. beraz". Hala ere, eskiatzeko pistetan ibiltzen den jende kopuru handia nahikoa arriskutsua dela esan digute, *"barritzekoa da eskiatzen ibiltzen den jende kopuru handiaren eraginez istripu gehiago ez gertatzea"*.

"Harritzekoa da eski alpinoko pistetan istripu gehiago ez gertatzea"

Eski-alpinoa egiten dutenek 5.500 pezeta ordaindu behar dute urtero segurua egiteko, baina mendiko federatu direnek, 2.900 pezetako segurua egitea nahikoa dute istripuetaz aseguratzen. Eski alpinoa egitea gainerako eski modalitateak baino errazagoa ote den galdetu diegunean, alpinoa ongi egiten inoiz ez dela ikasten erantzun digute: *"Ge-*

roz eta maila hobea bartzan joaten zara". Hala ere, argi dago abiadura atsegin duenak eta heldurrik ez duenak erruz disfruta-tzen duela eskietan aldapak ziztu bizian jaisten.

Fondoko eski, inguruan eskiatzeko aukera

Begoña Arana billabonatarrek hamar urte daramatza fondoko eski egiten. Fondoko eski txapelketetan parte hartu izan du, eta gaur egun ikastaroak ematen ditu. Fondoko eski ongi egiteko teknika behar-beharrezkoa dela esan digu, *"indar gutxiago egiteko eta errazago eskiatzeko"*. Bestalde, fondoko eski alpinoa baino zailagoa da, eski baten gainean eskiatzen baita, eta beraz, oreka gehiago behar da: *"Fondoko eskian gorputz guztiarekin eskiatzen duzu"*.

"Fondoko eskian gorputz guztiarekin eskiatzen da"



HOL - ATZ

VACSOL - WITRATAMENDUA EGURRARENTZAT



PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Elbarrena, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
ADUNA

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL

Eskiatzeko bi era ezberdin dau-
de fondoan: bata klasikoa, alternoa,
eta bestea berriz, patinatzaile esti-
loa. Berez, alternoa ikasi ondoren
ikasten da patinadore eran eskia-
tzen, "nabiz eta egun jende askok
patinatzaile eran eskiatzen ikasten
duen lehenengo".

Fondoko eskia alpinoa baino
askeagoa dela esan digu, hau da,
bakoitzak bere erara eta lasai eskia-
tzeko aukera du fondoan: "Eski al-
pinoko pistetan egon ohi den jen-
detza eta antzekorik ez da izaten
fondoko pistetan". Istripuei dago-
kionez, fondoko eskiko aseguruia
mendian federatu diren guztiak
dute, eta bestalde, merkeagoa da
fondoko eskia egitea: 1.000 pezeta
balio du egun baterako ekipoa alo-
katzeak. Gainera, elurra hemen in-
guruko mendietan eginez gero, es-
kiatzeko aukera paregabea izaten
da neguan.

Eski alpinoa eta fondoa batean

Gotzon Larrea eta Bixente Uguar-
rain billabonatarrek ere badute es-
kiatzeko afizioa. Begoñaren mo-
duan, Aizkardi mendi elkarteko ki-
deak dira biak, eta trabesiako eskia
egin ohi dute. Eski alpinoko eskien
antzekoak erabiltzen dira trabesiako
eskia egiteko, baina loturak ezber-
dinak dira, mugikorak dira: aldapak
jaisteko oina fijo lotzen da eskira,
alpinotan bezala; malda igotzeko
edota zuzen joateko, ordea, oina li-
bre edukitzen da eski gainean. On-

dorioz, alpinoko egiteko botak baino
oinetako erosoagoa erabiltzen da,
eta noski, trabesiako eskia alpi-
noko eskia baino arinagoak dira.
Horrezaz gain, atzera ez irristatze-
ko larruak jartzen zaizkie eskiei
malda gora abiatzean. Eskiatzeko
modurik gogorrena da trabesiako
eskia, mendian zehar pistarik ez den
lekuetatik eskiatu behar baita. Hala
ere, eskiatzeko modu bat baino, tra-
bessiako eskia mendia egiteko modu
berriztat ulertzen dute bi eskiatzai-
le hauek: "Neguan mendia egiteko
era bat da trabesiako eskia egitea:
mendizalea izan behar du eski
mota hau egiten duen eskiatzai-
leak".

"Mendizalea izan behar du trabesiako eskia egiten duenak"

Mendiko federatua izan behar da
istripuekin aseguratzeko, eta noski,
mendian eskiatzeak dituen arris-

kuak handiagoak dira: "Zenbait le-
kutan debekatuta dago erortzea",
azaldu digute. Gainera, nahikoa
garestia izaten da trabesiako eskia
egitea. Hala ere, inoiz eskiatu gabe-
ko gutxi ikusten da trabesiako es-
kia egiten, eta are gutxiago mendi-
zalea ez den norbait.





*ogi berezi eta
artesanauak
...
etxerainoko
zerbitzua*

OKINDEGIA, S.L.

OGI ZURI

OGI · GOXO



Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUA

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

Kaleberria 22
Telefona 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN

Aduna

UDALETXE BERRIAREN INAUGURAZIOA. 1959.



Ezkerretik eskuinera: Modesto Zabala alkatea, gotzaina, gobernadore zibila eta Diputazioko ordezkaria.

Udaletxe zaharra bota eta berria egin zuten 1959. urtean Adunan. Udaletxe berriaren inaugurazio egunean ateratako argazkia da hau, eta Gipuzkoako gotzaina eta agintariak etorri ziren Adunara udaletxea inauguratzera. Urte horretan, udaletxeaz gain, plaza eta hilerriarako bidea ere berri zituzten. Modesto Zabala, egungo

alkatearen aitona, izan zen urte askotan Adunako alkate. Aipatu beharrekoa da frankismoaren garaian alkateak ez zirela bozketaz aukeratzen: *"Gobernadore zibilak edo aukeratuko zituen"*, azaldu digu Jabier Zabala egungo alkateak. Bestalde, lehen, Francoren argazkia eskola, udaletxea eta leku publiko guztietan zegoen ikusgai: derrigorrezkoa zen argazkia jartzea.

Informazioa emailea: **Jabier Zabala**.


AMAIA
GIRRE
ZPIAZU

**MEDIKUA
OSTEOPATA**

RPS. N.º 121/96

•LUNBALGIAK •ARTROSIK
•GIHARRETAKO MINAK ETA ABAR...

KALE NAGUSIA, 7 - 1. ESK. ☎ 59 40 02
20140 ANDOAIN



ZUBi

AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

AIURRI

30 07 32

30 07 33

FAXA. 30 07 31

Iñigo Mitxelena, billabonatarra. Apaizgaia.



-Umetan, zer izan nabi zenuen?

-Ez dakit ziur, baina apaiza behintzat ez. Apaiza izateko erabakia, ordea, ez da egun batetik bestera hartzen. Ondo pentsatu eta gauza asko aztertu ondoren erabakitzen dela iruditzen zait; nik horrela egin dut behintzat.

-Noiz erabaki zenuen apaiz izatea? Zergatik?

-Lehen esan dudan bezala, ez da une jakin batean pentsatu eta egiten duzun zerbait. Ni beti egon naiz katekisia, sendotza eta parroki mugimenduetan sartuta. Baina erabakia, gebienbat, sendotza bartzu behar nuen momentuan osatu nuen. Momentu borretan, nire fedea sendotzen ari nintzenean, apaiz izan nabi nuela obartu nintzen. Historiako ikasketak utzi eta apaiz ikasketak egiten hasi nintzen Donostiako seminarioan.

-Nola hartu du berria zure inguruko jendeak?

-Orokorrean, denak barrituta geratu dira. Etxean inoiz ez nuen esan apaiz izan nabi nuenik, eta beraz, normala da barritzea. Gurasoek, nire nabia hori bada ados daudela esan didate, eta horrek asko lagundu nau. Lagunak eta gainerakoak ere barritu dira, baina animatu egiten naute eta nere erabakia-rekin ados daude.

-Zure adineko gazte baten bizimodu bera al daramazu?

-Bai. Hogei urteko gazte baten gauza berak egiten ditut. Astebukaeran lagunekin iriteten naiz... Askok uste dute garai bateko apaizen bizimodu bera eramango dugula, baina denborarekin batera, eliza ere aldatu egin da. Beraz, jendeari ideia hori burutik kentzeko eskatuko niuke.

-Zer moduz doaz ikasketak?

-Hiru hilabete bakarrik igaro dira ikasketak hasi nituenetik, baina orain artean, gustura nago. Sei urteko ikasketak dira, eta ni lehenengo mailan nago oraindik. Gure gelan bi gaude, eta beste kurtsoan ere ez daude asko; guztira hamabi gaude. Gure arteko giroa polita da. Bestalde, ez da unibertsitatea, eguneroko prozesu borretan egiten dira ikasketak.

-Zure herriko apaiza ala misiolari izango zinateke?

-Ebanjelioa jarraituz gero, misiolariaren bizitza garrantzitsua da, baina gure herrian ebanjelizatze-ko behar handia dago. Lan asko dago egiteko.

PERTSONAIA EZKUTUA



Aiurriren irakurleek asmatu beharreko pertsonaia berria duzue zirriborroaren atzean ezkutatuta. Beti bezala gure pertsonaia ezaguna da oso, eta beraz, erreza izango duzue nor den asmatzea.

Saria bikaina da oraingoan ere: **Andoaingo Edergai eskulan dendak margotzeko irudiak eta margoak** eskaini dizkigu oparitzat.

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenok bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: **Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15, 1 eskubia, 20140 Andoain.** Idatz ezazue zuen telefonoa zuekin harremanetan jartzeko.



MUSIKA**BILLABONA**

Abenduak 29: Billabonako OSKARBI TXIKI eta Berastegiko BASAKATIZ haur abesbatzen emanaldia. Billabonako elizan, arratsaldeko 20:00etan.

Abenduak 30: OSKARBI abesbatzaren kontzertua. Gurea zinema aretoan, arratsaldeko 20:00etan.

ASTEASU

Urtarrilak 5: OSKARBI abesbatzaren kontzertua.

ERAKUSKETA**BILLABONA**

Abenduaren 24tik urtarrilaren 1era: Pintura erakusketa. Gurea zinema aretoko erakusgelan.

ANDOAIN

Urtarrilak 10-19: Litografiako erakusketa, Urigain Kultur Etxean. Astegunetan, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

IBILALDIAK**ANDOAIN**

Urtarrilak 1: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta, goizeko seiretan ADARRA mendira igoera. Bertan ohiko salda emango da.

BILLABONA

Urtarrilak 1: LOATZO mendira igoera.

PAILASOAK**BILLABONA**

Urtarrilak 3: "TUTIK ERE CLOWNS" pailasoak. Gurea zinema aretoan, arratsaldeko 18:00etan.

BESTE**ANDOAIN**

Abenduak 31: Andoaingo herrian erregeentzako eskutitzak jasoko dituzte pajeek. Eguerdik 12:00tik aurrera.

Urtarrilak 5: Erregeen kabalgaita arratsaldeko 18:30etatik aurrera.

ZIZURKIL

Aerobic-a: Aerobic ikastaroa astelehen, asteazken eta ostiraletan, goizeko 9:30etatik 10:30etara. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 3an, Kultur Etxean.

ZINEMA**BILLABONA
GUREA ZINEMAN**

Abenduak 25etik urtarrilak 27ra bitarteko filmeak:

- *Trainspotting*
- *En el nombre del hijo*
- *Mis dobles mi mujer y yo*
- *Fanático*
- *Un padre en apuros*

MERKATU TXIKIA**ANDOAIN**

PISUA SALGAI: Aiztondo kalean, 3 logela, sukalde ederra, komuna, trastero txikia etxe barruan eta trastero ederra etxetik kanpo. Dena berrituta dago orain urtebete. Bizitzera sartzeko prest. Prezioa 12.750.000 pzta. Tfno: 590158. (Bazkalgaraiaren edo afalgaraiaren deitu).

ESKIAK SALGAI: 1'40m. eta 1'45m.koak. 8-10 urte bitarteko hauturrentzat. Ikasteko paregabeak. 4.500 pzta. pare bakoitzak. Deitu 907-591371 telefonora.

ANDREGAI SOINEKOA SALGAI: Udaberriko aproposa, beso motza. Tfno: 693913.

KOMIKIA

Zabala

Ordukari Bitxitegia



*Zure ametsak
egi bihurtu daitezten*

SEIKO  LOTUS  TISSOT RACER

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - HERNANI

Aurten erregeek KIÑU dendan
erosiko dituzte opariak

Ume Jantzi Denda



Santiago kalea, 2 - Tel. 69 38 59 - 20150 Billabona

TXURRUT

edaritegia

Urte zahar gauerako
giro aparta

**JATETXEA
TABERNA**



JOXE ARREGI PLAZA - ☎ 69 04 47

ZIZURKIL

EGUNEKO MENUA

- ✓ Lehenengo 4 plater
- ✓ Bigarreno 5 plater
- ✓ Etxeko postreak
- ✓ Kafea eta edariak

900 pezeta

**KALITATEA ETA
SEGURTASUNA ZURE
ZERBITZURA**

URPA


AUTOBUSAK

☎ (908) 77 56 48
(24 orduak)

☎ 59 38 05
(Garajea)




Sorabilla auzunea, 53. Pol
ANDOAIN (Gipuzkoa)



Olasagasti
Bikoitz
Enara

ANDOAIN



ANDOAINGO
ZURE
ARTISAUAK